

Bizitza Jokoan II txostena

Estraktibismoa vs Giza Eskubideak



GUAPINOL EZ DA IBAIA BAKARRIK

Guapinol ez da ibaia bakarrik

Lehen edizioa: 2024

© Mugarik Gabe
© Autor: Jesus González Pazos

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Binari Comunicación

ARGAZKIAK:

Radio Progreso. La voz que está con vos; Canal Telegrama Guapinol Exige Justicia; Contracorriente, Avispa Mídia y Criterio.hn eta Centro de Estudio para la Democracia.

MUGARIK GABE
(www.mugarikgabe.org)
f: Mugarik Gabe
✉: @mugarikgabe
v: Mugarik Gabe
i: @mugarikgabeongd

BIZKAIA
Vicente Garamendi taldea 5, lokala
48006 Bilbo
944 154 307 (bilbao@mugarikgabe.org)

ARABA
«Itziar» elkartearen etxea.
Zalburu plaza z/g
01003 - Vitoria-Gasteiz

GIPUZKOA
Katalina Elizegi 46, behea, 3. atea
20009 Donostia
943 445 977 (gipuzkoa@mugarikgabe.org)

Creative Commons lizentziarekin argitaratutako lana. Erreproduzio osoa edo partziala baimentzen da, honako baldintza hauek betez gero:

- Aitortu (Attribution): Materiala hirugarren pertsonen banatu, kopia eta erakutsi dezakete, kredituetan aipatzen bada.
- Ez Komertziala (Non comercial): Jatorrizko materiala eta lan eratorriak banatu, kopia eta erakutsi egin daitezke, erabilera komertziala ez duten bitartean.
- Lan Eratorririk Gabe (NoDerivativeWorks): Materiala banatu, kopia eta erakutsi daitezke, baina ezin da erabili jatorrizkotik eratorritako lan bat sortzeko.



Hemen aurkeztuko diren ikerketa eta txostena honako proiektu honen harira egin dira: «Bizitza Jokoan: Lurra, Bizitzak eta Eskubideak» (II. Fasea), 2023an, eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) eta Mugarik Gabek finantzatu dute. Argitalpen honen edukia egilearen eta Mugarik Gabe taldearen ardura da, eta ez du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia engaiatzen, proiektuaren finantzatzaile izan den arren.

GUAPINOL EZ DA
IBAIA BAKARRIK

Txosten hau, eta atzean duen ikerketa-lan guztia, gehienbat gure lankide Jesus Gonzalez Pazosek egin zuen. Zorritzarrez, azken orrazketak egiteke hil zen. Bere lana berrartu eta amaitu dugunontzako gogorra bezain gogobetegarria izan da bere azken ikerketa eta idazketa lanari jarraipena eman ahal izatea. Guapinoleko kideen borrokan garrantzia nabarmentzeaz gain, balio beza txosten honek gure kideari bihotz-bihotzetiko omenaldi xumea egiteko.

Eskerrik asko Jesús.

Aurkibidea

SARRERA / 6

TESTUINGURUA / 8

ESTATU-KOLPEA / 10

EREDU ESTRAKTIBISTA / 11

OLIGARKIA PROTAGONISTA / 13

GATAZKA / 15

GATAZKA GERO ETA GOGORRAGOA / 17

KRIMINALIZAZIOA ETA ERREPRESIOA / 20

URRATS BERRIAK / 22

NARKOESTATUA ETA ESTRAKTIBISMOA / 23


ESTATU ESTRAKTIBISTAREN AZPIJOKO POLITIKOA / 24

HERRI BATZARRAK TERMOELEKTRIKOAREN PROIEKTUA BAZTERTU ZUEN / 26

KABILDOA IRUZURRA DA / 27

ORAINDIK EZ DA AMAITU... / 28

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK / 30



Sarrera

«Guapinol ez dira bakarrik ibaia eta lurra, Guapinol badira ere lurraldean bizi diren pertsonak». Dalila Argueta, defendatzailea.

«Ingurumenarekin lotutako gaiak joratzeko modurik onena herritar eta interesdun guztien parte-hartzearen bitartez da, dagokion mailan (...) Estatuek herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea erraztu eta sustatu beharko lukete informazioa guztion eskura jarritz». 10. printzipioa, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena (NBE, 1992).

«Ingurumen osasuntsua izateko eskubidea honako neurri haue-tan oinarritzen da: klima segurua eta egonkorra; toxikorik gabeko ingurumena; aire eta ur garbiak; eta elikagai seguru eta elikagari-riak. Natura errespetatzen duen hezkuntza izateko eskubidea; parte hartzeko eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea; eta justiziarako eskubidea biltzen ditu (...)» Michelle Bachelet, Giza Eskubideetarako Goi Komisioiduna (2018-2022). Giza Eskubideen Kontseiluaren 44. saioan, 2020ko ekaina/uztaila.

Aurreko hiru aipuek txostenaren eremua kokatzen dute: eredu estraktibistaren eta herritarrek beren eskubideak eta naturarenak defendatzeko duten eskubidearen arteko harreman korapilatsua izango da ardatza. Aurreko txostenetan bezala, lotura hori egoki kokatu eta aztertze-ko kasu zehatz bat hartuko da. Salbuespen bat izate-tetik urrun, Horacio Machado ikertzaile argentinar-arrak (2018) adierazitakoaren parte da:

XX. mendeko azken urteetan metalurgia-meatzaritzak goraldi handia izan zuen Latinoamerikako geografia

zabalean. Beste behin ere, 1492az geroztik beste hainbestetan gertatu bezala, bertako muino eta mendietako aberastasunak interes sare konplexu baten desira bihurtu ziren, munduko boterearen eta eskualdeko eta tokiko adarren adierazpen historiko aldakorrei lotuak. (49. or).

Guapinol erresistentzia da Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazionalean dagoen burdin meategian diharduen Inversiones Los Pinares megaproiektuaren aurrean. Guapinol Hondurasko Karibe aldean kokatuta dagoen Colón departamenduko Tocoa udale-




rriko komunitatearen izena da. Gatazkaren erdigunea da eta, nolabait, nazioarteko aitortza eman dio herritarrek lurraldea politika estraktibisten aurrean defendatzeko egindako borrokari. Segurtasunagatik aspaldi bere lurraldea eta komunitatea utzi behar izan zituen Dalila Argueta defendatzailearen hitzak berreskuratuz, txostenak honakoa gogorarazten digu: «Ibai bat ibaia baino gehiago ere bada: bertoko jendea bere lurraldean».

Hala ere, ia beti bezala eta arrastoak ematen baditu ere, garrantzitsuena ez da izena, edukia baizik. Hori dela eta, hurrengo lerrootan kasu honen inguruko oinarrizko informazioa bilduko dugu, eta jarraian berau definitzen duten alderdi guztietan sakonduko dugu.

Meatze-megaproiektu hau burdin oxidoa erauzteko meategi gisa hasi zen, baina berehala hasi ziren meatze-proiektu soil batetik haragoko neurriak hartzen. Hala, hasiera-hasieratik agerikoak izan ziren zenbait elementu Hondurasko eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, Erdialdeko Amerikako megaproiektu erasokorrenetakoztat jotzen zutenak.

Meatze- megaproiektu honek argi erakusten du nolakoa den Latinoamerikako erauzketa-eredua eta nola jarduten duen

Aipatutako burdin meategia Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazionalen dago. Guztiz salagarria da hori; izan ere, parke nazional izendatutako lurralde baten defentsa ez da bateragarria aire zabaleko meategi baten ezarpenarekin. Are gehiago, megaproiektu horrek Hondurasko bailara emankor eta gatazkatsuenetako bateko ibaiei —Bajo Aguán eskualdekoei— kalte egingo dieten uraren aprobetxamendurako emakidak ere baditu. Gainera, aurrerago beste proiektu batzuk ezartzeko asmoa dute, esaterako, erauzitako burdin oxidoa pellet bihurtu eta ondoren esportatzeko lantegi bat eta instalazio termoelektriko bat erauzketa-prozesu osorako beharrezko energia ekoizteko. Azpimarratu behar da energia hori kokea erretzearen bidez lortuko litzatekeela, hau da, oso kutsagarria eta lohi-tsua den petrolioaren eratorria. Jakina, megaproiektu guztia Erdialdeko Amerikako handiena bezala aurkezten dute, Hondurasko eta eskualdeko garapenaren zutabe nagusienetakoaren gisara. Azkenik, txostenera bueltatuta, meatze-megaproiektu honek argi erakusten du nolakoa den Latinoamerikako erauzketa-eredua eta nola jarduten duen: kriminalizazioa, jazarpena, erailketak... eta, finean, giza eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa sistematikoa.



Testuingurua

Naturaren eskubideak urratzearen eta giza eskubide kolektibo eta indibidualak bortxatzearen arteko lotura ikusarazteko egindako Bizitza Jokoa prozesuaren argitalpenean azaldu genuen Honduras ustiapen masiboaren eta baliabide naturalen kontrolik gabeko ustiapenaren eredu garbia zela, eta, hortaz, naturaren suntsiketaren eta giza eskubideen urraketa adibide tamalgarria (Mugarik Gabe, 2022).

Nolanahi ere, garrantzitsua da azpimarratzea gehiegitan oharkabean igarotzen bada ere, Erdialdeko Amerikako herrialde hau errealitate erasokor horren aurkako erresistentzia komunitarioaren eredu ere badela. Zalantzarik gabe, 2016ko martxoan lider lenca Berta Cáceres erail izanak oraindik ere bistaratzen du basoak, mendiak, ibaiak eta pertsonen zein herrien eskubideak suntsitzen dituzten megaproiektuen aurkako erresistentzia herrikoia bizirik dagoela.

Aipatutakoetatik beste elementu bat ondorioztatu daiteke, Hondurasko azken hamarkadetakako testuingurua definitzen duena: Honduras tokiko oligarkiaren eta nazioz gaindikoa paradisu gisa irudikatzea, bertan jarduteko dituzten baldintza pribilegiatuak direla eta. Paradisu hori infernua bilakatzen da sistema bidegabe hori aldatzeko eraldaketa sozial, politiko eta ekonomikoen premia defendatzen dutenentzat. Izan ere, azken urteotako

nazioarteko hainbat txostenen arabera, Honduras munduko herrialderik arriskutsuenetako bat da lurraren eta naturaren eskubideen defendatzaileentzat.

Azkenik, eta Erdialdeko Amerikako herrialde honen egoeraren azalpen azkarrarekin amaitzeko, aipatu behar da azken urteetan Honduras hainbat aldiz agertu dela albistegietan Estatu Batuetarako «migratzaileen karabanen» irteera-gunea izateagatik. Milaka pertsonak, gizon, emakume eta haurrek, milaka kilometro egiten dituzte oinez Guatemala eta Mexiko zeharkatu eta Ipar Amerikako mugara iristeko. Bertan, intolerantziaren eta arrazakeriaren harresiarekin egiten dute topo. Karabanek harritzen bagaituzte, are gehiago arduratu beharko gintuzkete horiek eragiten dituzten arrazoiak. Txosten honetan horietako batzuk aurki daitezke, adibidez, biztanleriaren etengabeko pobretzea, lurraldearen narriadura eta bizitza duinerako itxaropenik eza.

Hondurasek, Guatemala eta El Salvadorrekin batera, Erdialdeko Amerikako ipar triangulua deritzona osatzen du, pobrezia, ustelkeriaren eta gobernu okerraren hirukia ere deitua izan daitekeena. Estatistiken Institutu Nazionalaren (INE, 2022) datuen arabera, 2021eko uztailaren 9.455.948 biztanle zeuden guztira, horietatik gehienak mestizoak (% 90). Hala ere, biztanleria indigena nabarmena da, % 7ra artekoa (miskitoak, toluapanak,

chortiak eta lencak), eta beste % 3 garifunak dira (kari-been, arawaken eta afro-ondorengoak).

Herrialdearen azaleraren % 10 baino ez da ereingarria (iturri batzuen arabera % 31), eta Hondurasko biztanleen gehienak «korridore lehor» deiturikoan bizi dira, hau da, erdialdeko eta hegoaldeko eremuan. Korridore hau Mexikoko Chiapas estatuan hasi eta Costa Ricako ipar-mendebalderaino iristen da, Guatemalako, El Salvadorreko, Hondurasko eta Nikaraguako lurraldeen zati handi bat zeharkatu ondoren. Ereku horretan berezkoak dira lehorte ziklikoak. Lehorteok, El Niño fenomenoarekin eta krisi klimatiko nabarmenak eragindako muturreko beste gertaera klimatologikoekin batera, oso gogor kolpatzen ari dira ingurua azken urteotan. Gaur egun, Hondurasko lurraldearen % 19an ur eskasia dago, eta mende honen amaierarako euria % 30 edo 40 inguru murriztuko dela aurreikusten dute, betiere klima aldaketak prozesu hori are gehiago bizkortzen ez badu.

Ekonomiak bi produktu tradizionaletan ainguratuta jarraitzen du: kafea eta banana. Horiei egungo agronegozioan ohikoa den hirugarren bat gehitu behar zaio: Afrikako palma. Horietaz gain, maquila ekoizpen-sistema ere badago ehunak, edariak eta elikagaiak ekoizteko, eta munduan maquiladora gehien dituen hirugarren herrialdea da Honduras. Azkenik, aipatu behar da gaur egun Estatu Batuetara eta Europara iristea lortu zutenek egiten dituzten bidalketak oso garrantzitsuak direla: herrialdeko dibisa sarrera nagusia dira, BPGren % 20 inguru (Suitzako Irrati eta Telebista Sozietatearen Lineako Zerbitzua [Swissinfo], 2021), maquiletatik edo kafe eta banana esportazioetatik eratorritakoen oso gaineratik.

Arestian azaldu dugu lur ereingarria urria dela, hala egiaztatzen du Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO). 1962ko eta 1972-1975 urteetako bi nekazaritza-erreformak eta Hondurasko Estatuak birbanaketarako ezarritako programak gorabehera, neka-

zaritza-lurren % 50 jabeen % 15en eskuetan dago. Egoera hori dela eta, lur gutxi daude ustiatzeko eskuragarri eta nekazariak laborantza-azaleraren % 20 baino ez dute lantzen. Horregatik, landa-eremuko biztanleen % 71,1 muturreko kalteberatasun-egoeran bizi dira (ACNUR, 2017, 4. or.). Nekazaritza funtsezko sektorea da, herrialdeko enplegu osoaren % 38 eta landa eremukoaren % 60 eragiten du, baina, hala ere, oinarrizko beharrianak hala moduz asetzeko baino ez du ematen. Are gehiago, proiektu estruktibista handiak ezartzeak lurralde-eremu

zabalak ezgaitzen ditu bizirau-peneko laborantza tradizio-naletarako eta tokiko merkaturako, eta ez dute lanpostu berririk edo bizi-alternatibarik sortzen nekazaritza-lanaren galeraren aurrean.

Herrialdearen errealitatea ulertzeko lagungarria den beste elementu aipagarri bat dago: Munduko Bankuaren arabera, Hondurasek Latinoamerikako kontinenteko desberdintasun-tasarik handienetakoa du. Genero-desberdintasunari erreparatuta, egoera are larriagoa da, batez ere, soldata-desberdintasunei eta lan-merkatuan sartzeko aukerei dagokienez. Munduko Bankuaren informazioaren arabera (2023ko urriaren 4a):

Hondurasek eskualdeko herrialderik txiroenetako eta desorekatuenetakoa bat izaten jarraitzen du. 2020an, Eta eta lota urakanen eta pandemiaren ondorioz, pobrezian bizi ziren biztanleen proportzioa %

57,7ra iritsi zen (USD 6,85 pertsona bakoitzeko, 2017ko PPAin oinarrituta); 2019arekin alderatuta % 49,5eko igoera da hori. Orduetik, ekonomiaren eta lan-merkatuaren susperraldiak eta diru-bidalketen ondoriozko diru-sarrerek pobrezia murrizten lagundu dute.

Uste da pobrezia-maila % 52,4ra jaitsi zela 2022an, baina ehuneko horrek COVID-19aren aurrekoa baino handiagoa izaten jarraitzen du. Urte berean muturreko pobrezia (2017ko PPAin oinarritutako USD 2,15 lerroaren arabera neurtuta) % 13,3 izan zela kalkulatu dute.

*Munduko
Bankuaren
arabera,
Hondurasek
Latinoamerikako
kontinenteko
desberdintasun-
tasarik
handienetakoa
du. Genero-
desberdintasunari
erreparatuta,
egoera are
larriagoa da*

Estatu-kolpeak

2009ko ekainaren 28an Hondurasek estatu-kolpe eredu berri bat abiarazi zuen Latinoamerikako lurraldean. Ordua arte, XX. mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetakako estatu-kolpeen irudiak ziren nagusi, armadek demokrazia-aren legezatasunaren barruan eraso egiten zutenekoak: Estatuko botere guztiak bere gain hartzen zituzten eta milaka hildako, espetxeratu eta erbesteratu eragiten zituen errepresio bortitzeko etapa bati ematen zioten hasiera. Askotan ahaztu ohi da, baina komeni da gogoraraztea Pinocheten 1973ko kolpeaz geroztik kolpe guztiak eredu neoliberalaren inposaketak lagunduak izan direla arlo ekonomikoan.

Bada, 2009an, botere legegileak, judizialak eta elite ekonomikoek abiatutako liskar garai baten ondoren, Manuel Zelaya presidentea gobernutik bota zuten, baina bere bizilekutik ere; gaua aprobetxatu zuten Costa Ricara eraman eta herrialdeko agintari gisa zituen botereak kentzeko. Orduan hasi zen, arestian aipatu bezala, gobernu aurrerakoien aurka kontinentean zehar hedatuz joan ziren estatu-kolpe bigunen garaia: Correa Ekuadorren, Dilma Rousseff Brasilen, Fernando Lugo Paraguain... la kasu guztietan, aurrez aurreko konfrontazioen orde, etengabeko ekintza desegonkortzaileak izan ziren nagusi. Botere ekonomikoak, judizialak, legegileak, komunikabideek... momentuko gobernuaren erorketa eragin zuten, modu agerikoagoan edo ezkutuagoan, baina betiere gobernu progresistei eraginda.

Hain zuzen ere, Hondurasen izandako kolpearen arrazoiak —ez justifikazioak—, presidentek politika aurrerakoietarantz egindako aldaketa izan ziren, nahiz eta ohiko Alderdi Liberaletik etorritakoak izan. Industria estraktibistaren gaineko kontrol handiagoa lortzeko asmoek, meatze-emakidak luzatzearekin batera eta lurraren nolabaiteko birbanaketari ekin ziezaiokeen nekazaritza-erreforma berri bat egin nahi izateak, doako eskolatzea gisako beste aurrerapen sozial batzuei gehituta, berehala egin zuten topo azken hamarkadetan Hondurasen nagusi izan ziren elite politiko eta ekonomikoaren aurkakotasunarekin. Gainera, garai hartan Estatu Batuek «Latinoamerikako gaitzaren ardatz» gisa izendatzen zutenarekin lotu zituzten, Venezuelako, Kubako, Ekuadorko, Boliviako edo Argentinako gobernu aurrerakoiek osatzen zutena.


Baina, zalantzarik gabe, atzean zegoen benetako arrazoia zen martxan jarri nahi zituzten politika berri guztiek mehatxu egiten zirela lurjabeen, eliteen eta tokiko eta nazioarteko erauzketa-industrien interesei. Ziur aski, elite horiek sentitzen zuten mehatxu horren frogarik argienetako bat da estatu-kolpearekin batera agenda neoliberalak berrezarri eta sakondu egin zirela, lege eta neurri juridiko berriak azkar onartuz, zeintzuek inoiz ikusi gabeko erauzketa-emakiden etapa bizkor bat ahalbidetzen zuten prozedurak sinplifikatu zituzten: hobari fiskalak onartu zituzten eta lege-esparrua oso permisiboa bilakatu zuten. Kolpea izan eta hurrengo hilabeteetan, eremu babestuetan proiektu hidroelektrikoak debekatzen zituzten dekretuak indargabetu zituzten; gobernu berria de facto hasi eta sei hilabetera, 48 emakida hidroelektriko berri zeuden.

Estatu-kolpearen ostean hautatutako lehen gobernuak (2010-2013) ibai-emakida masiboak, presen eraikuntzak, eta hidrokarburo- zein meatze-ustiategiak baimendu zituzten legeak onartu zituzten. Arautze berrien malgutasunaren erakusgarri da Meatzaritza Legeak (2013) enpresa ustiatzaileak emakidaren barruan zein kanpoan dagoen ur guztia erabiltzeko aukera ematen duela, eta horrek, jakina, zuzenean kaltetzen dituela meategien inguruan dauden komunitateak. Ildo beretik, lege horren arabera bazterketa-eremuen definizioak babesik gabe uzten ditu herrialdeko eremu babestuzat jotzen direnen % 90. Arlo horretan, oso esanguratsua da jakitea lege hori Kanadako meatze-korporazioekin kontsultatu zela eta Kanadako Nazioarteko Garapenerako Agentziaren laguntza izan zuela. Datu hori ulertzeko kontuan hartu behar da urteetan Kanada izan dela Hondurasko meatze-sektorean inbertitzaile handiena.

Laburbilduz, estatu-kolpeak aukera ematen du oso erasokorra den eredu estraktibista bat ezartzeko, garatzeko eta hedatzeko, eta, gainera, txosten honetan ikusiko dugun bezala, ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren esparruan egiten du, ia erabat.

Horrek, era berean, gatazka sozial eta politiko handien garai berri bat ekarriko du, naturen eskubideen eta giza eskubide kolektibo zein indibidualen urraketa sistemati-koen garaia. Bortxaketa horiek, besteak beste, lurraren eta lurraldearen defendatzaileak kriminalizatzeko, jazartzeko eta erailtzeko prozesuak areagotzean islatuko dira.

*Oso erasokorra
den eredu
estraktibista bat
ezartzea erraztu
du Estatu-kolpeak*



Eredu estraktibista

Beti aurkezten dituzte proiektu estraktibistak kaltetu-tako eremuarentzako eta herrialdearen garapenerako beharrezkotzat; areago, ekonomiaren hazkundearen eta munduko aurrerapenaren dimentsioarekin ere lotzen dituzte. Hala eta guztiz ere, ez dago froga askorik eragin positibo horiek biztanleen gehiengoentzako direla erakusten duenik, are gutxiago megaproiektua garatzen den lurraldean eragin zuzenena dutenentzat, haien bizi-baldintzen hobekuntzari dagokionez behintzat. Aitzitik, eta hau bada frogagarria, gutxiengoaren onurak eta pribilegioak nabarmen hazten dira, hots, tokiko zein nazioarteko oligarkienak eta elite ekonomiko eta politikoenak.

Eduardo Gudynas (2019) garapen jasangarriari eta klima-aldaketari buruzko ikertzaile eta analistak azaltzen du eredu estraktibista, oro har, aldi berean hiru ezau-garri gertatzen direnean ematen dela: baliabide naturalak bolumen handian edo intentsitate handian erauztea, horien erdiak edo gehiago merkatu globaletara esportatzea, eta hori lehengai edo salgai gisa egitea (22-23 or.). Kontzeptu horretan sektore ekonomikoak sartzen dira, hala nola hidrokarburoak eta aire zabaleko meatzari-tza, baina baita berriagoak ere, kasurako, agroindustria (soja-monolaborantzak, olio-palmondoa, kanabera...), abeltzaintzako ustiategi handiak eta kontrolik gabeko arrantza. Gainera, turismo-azpiegitura handiak gehitu beharko lirateke arlo horretara, azkenaldian Hondurasen oso presente daudenak.

Gudynasen kontzeptua erabilia ondorioztatu dezakegu jarduerak eskala handian eta era intentsiboan egiten diren esparruan gizarte- eta ingurumen-inpaktuak nabarmenak direla eta herritarren gehienek larriki pairatzen dituztela. Hala ere, onurak ez dira tokian gertatzen, kanporatzen dira; izan ere, onura horiek erakunde pribatuen eskuetara igarotzen dira, tokiko oligarkien edo proiektu horiek gauzatzen dituzten nazioz gairako erakundeen eskuetara. Bitartean, Estatuak aukera guztiak galtzen ditu industrializatzeko eta sor dezaketen aberastasuna birbanatzeko, eta, beraz, biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko.

Horrela, eredu estraktibistaren ezarpenaren koadroa gutxi gorabehera osorik irudikatu dezakegu, eta eredu horrek eragiten dituen kateak agerian utzi. Lehen nabaritzen dena lurraldearen gaineko ingurumen-inpaktuak dira; horiek eragin zuzen eta negatiboa dute naturan, eta gaur egun gero eta nabarmenagoak dira klima-krisian. Berehala inpaktu sozialak hautematen dira: osasunerako, osotasunerako, bizitzarako... arriskuak. Eta, azkenik, gatazkaren areagotzea: erresistentziak, kriminalizazioa, errepresioa, liskarrak... Hauek giza eskubide indibidual zein kolektiboen urraketekin batera datoz, hau da, ingurumen osasuntsu baterako, lurralderako, kontsultatuak izateko, parte-hartzeko eta bizitza duinerako eskubideen urraketak, sistematikoak izan zein ez, eta bortitzagoak zein lausoagoak izan. Beraz, eredu horren hedapenak lurraldeetan indarkeria-ereduak ugaritu



dituela baieza daiteke, baita desberdintasunaren arrakala handitu ere (Justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aldeko Zentroa [CEJIL], 2022, 30. or.)

Eredu estraktibistaren sorburuari begira, sustraiak Washingongo Akordioen (1989) ortzi-mugan kokatu daitezke. Akordio horiek, finean, eredu neoliberal antolatzen duten neurrien multzoak dira: Estatuaren protagonismoaren galera, sektore ekonomiko estrategikoen pribatizazioa, enpresentzat mesedegarriak diren zerga-politikak, merkaturaren askatasuna, eskubideen ahultzea... Neurri horiek baldintza egokiak ezarri zituzten eredu neoliberalaren eta nazioz gaindiko erauzketa-enpresen aldeko arauak eta xedapenak aplikatzeko. Azken horiei dagozkienak hurrengoak dira: arau deserregulatzailleetan oinarrituta atzerriko inbertsioa sustatzeko erreforma-multzoa eta inbertsiorako baldintzak murriztea, esaterako, zerga gutxiago, zerga-erreforma onuragarriak, zerga-hobariak, giza eskubideekiko edo ingurumenarekiko prozedurak eta eskakizunak sinplifikatzea, eta abar.

Ustiapen-eredu hori defendatzen dutenek ezkutatu egiten dute —edo minimizatu, ezinezkoa denean— inposaketa hori era oldarkorrenean egiten den herrialdeetan sortzen den ustelkeria- eta zigorgabetasun-maila. Hondurasen, ustelkeria-praktikek, emakidak eta/edo lizitazioak emateko prozesuetako irregulartasunek eta megaproiektuen garapenak giza eskubideen eta ingurumenaren kaltetan atzerriko inbertsioa bultzatzeko

Eredu estraktibistaren hedapenak lurraldeetan indarkeria- ereduak ugaritu dituela baieza daiteke

pentsatutako egituraren zati bat osatzen dute (CEJIL, 2022, 17. or.). Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) datu esanguratsu bat eman zuen argitara: «Hondurasiko zigorgabetasun-tasak % 90tik gorakoa izaten jarraitzen du, eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako delituen % 97 baino gehiago zigorrik gabe geratzen dira» (CIDH, 2019, 86. or.). Horien artean, gehienak ingurumen-defendatzaileak dira.

2006an Estatu Batuekin Merkataritza Askerako Ituna sinatzeak eta Manuel Zelayaren gobernuak ekarri zuen atsedean laburra hautsi zuen 2009ko estatu-kolpeak biziki azkartu zuen Hondurasen eredu neoliberalaren inposaketa prozesua eta bere korrelatu estraktibista. Tratatuari dagokionez, ondorioetako batzuk suntsitzaileak izan ziren herrialdeko nekazaritza-ekonomiaerentzat. Hondurasek elikagaien subiranotasunaren aldeko borroka galdu zuen oinarritzko zenbait alerekin, hala nola artoa, indabak eta arrozak, baita barazkiak eta frutak ere (Perla, 2019, Alianza Centro Americana Frente a la Minería [ACAFREMIN] delakoan aipatu zen bezala, 2020, 19. or.). Sei urtean, Estatu Batuetara nekazaritza-produktuak esportatzailetik inportatzera igaro zen. Produktu horiek oso subentzionatuta zeudenez, herrialdean ekoiztitakoak baino merkeagoak ziren.

Bestalde, aipatu bezala, estatu-kolpeak lege nagusiak berriz diseinatzea ekarri zuen, bai eta meatze-emakidak edo bestelako megaproiektuak biderkatzeko funtsezko arauak aldatzea ere, harreman ekonomiko, politiko eta sozialen esparrua erabat aldatu zutenak.



Oligarkia protagonista

Inversiones Los Pinares enpresa ameslaria da eta burdin-oxidoa erauzteko proiektu berrizalea du Tocoan (Colón). Enpresa eredugarria da kalitate-prozesu konplexuei, ingurumenarekiko duen erantzukizunari, bere gizarte-planenei eta sortzen dituen lan postuei esker (EMCO, 2024).

Aurreko aipua EMCO enpresa-multzoaren webgunean irakur daiteke. Inversiones Los Pinares multzo horren parte da da, siderurgia-dibisioari atxikia. EMCO Holding Taldea Erdialdeko Amerikako garapenaren eta ekonomiaren zutabeetako gisa aurkeztu ohi da, hainbat sektoretan esku hartzen duena. Esaterako, aireportuen sektorean. EMCO Palmerolako nazioarteko aireportuaren eraikuntzaz eta funtzionamenduz arduratu zen, karga-terminalen negozioaren jardueraz, energiaren sorreraz eta eraikuntzaz.

Txosten honetan siderurgiaren sektoreko bi enpresatan jarriko dugu fokua: Inversiones Los Pinares, meatze-e-

makidekin lotutako guztia bere gain hartzen duena (esplorazioa eta ustiapena); eta ECOTEK. Azken hori aurretik aipatutako pellet-fabrikaren eraikuntzaren buru da eta Erdialdeko Amerikako handiena bilakatzea du xede. Bertan burdin-oxidoa pellet bihurtuko dute, ostean esportatzeko, batez ere Estatu Batuetara. Beste elementu garrantzitsu bat instalazio termoelektrikoa da, pelletizatzeke makinaren funtzionamendurako oinarritzkoa. Burdingintzako bi enpresak, Inversiones Los Pinares eta ECOTEK, Tocoa udalerrian jarduten dira; Guapinol eskualdeko horretako komunitateetako bat da.

Baina, norena da konplexu industrial hori? Jabeak Ana Facussé eta Lenir Pérez dira. Lehena Miguel Facussé Barjumen alaba da, Estatu Batuetako enbaxadaren arabera 2015ean hil zen arte Hondurasko gizonik aberats eta boteretsuena izandakoa. Hondurasko oligarkak historia iluna du Bajo Aguán eskualdean, Tocoa dagoen lurraldean. Bertako nekazariak beti egin dute lurra defendatzearen aldeko borroka eta palmondo

afrikarra edo oliontzia masiboki landatzeko proiektu handien aurka.

Bada, Lenir Pérezek, gaur egun EMCO Holding Taldeko presidentea denak, azken urteetako gobernuekin harreman estuak izan ditu; egun ere mantentzen ditu, baita Hondurasko elite ekonomikoarekin ere. Joan den hamarkadan harremanak izan zituen Juan Orlando Hernández (JOH) Hondurasko presidente ohiarekin (2014-2022), gaur egun Estatu Batuetara estraditatu eta droga-trafikoarekin lotutako karguengatik kondenatua; eta, urte hauetan, Xiomara Castroren gobernu progresista berriarekin izan ditu harremanak, hain zuzen Tomas Vaqueiro Gobernazio, Justizia eta Deszentralizazio ministroarekin. Hainbat iturriren arabera, 2022ko ekainaren 1etik EMCO taldeak eta bere presidentek ministroaren bazkide eta emazte Lourdes Pamela Blanco Luque abokatu eta notarioaren zerbitzu profesionalak erabiltzen dituzte (Contra Corriente, 2023ko urtarrilaren 10a). Jakina, hori ez da berez legez kanpokoa, baina bada Hondurasko oligarkia zaharrak, kasu honetan Lenir Pérezek, Xiomara Castroren gobernu berriko agintariekin harreman estuak izateko duen gaitasunaren erakusle.

Tokian tokiko mailan, azpimarratu behar da Tocoako presidente ia botereguztidun Adán Fúnezekin duten harreman estua. Fúnez egungo gobernuko Libertad y Refundación (Libre) alderdiko kidea da eta harreman hori ezinbestekoa da megaproiektuak behar duen erakunde-babes eta garapenerako.

Baina, nor da Adán Fúnez? Tocoako ia botereguztidun alkatea da 2006az geroztik. Hortaz, udalerriko bizitzaren erabateko kontrola du. Datu batzuen arabera, urte hauetan botere politiko praktikoa eta ekonomikoaren zati handi bat eskuratu du, ez bakarrik udalerrian, baita Colón departamentuan ere. 2002an, Xiomara Castroren gobernu berria martxan zela, Adán Fúnez departamentuko gobernadore izendatu zuten. Horrek piztutako protesta ugarien aurrean dimisioa aurkeztu zuen, baina kargua bere langile leial eta erabateko konfiantzako gizon bati utzi zion (Contra Corriente, 2024). Bestalde, 2017an narkotrafikoagatik epaitu zuten Estatu Batuetan Fabio Lobo, Porfirio Lobo presidente ohiaren anaia (2010-2014), eta 24 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Epaiketa horretan Adán Fúnezen ustelkeria argitara ate-

ra zen, narkotrafikotik ateratako dirua jaso baitzuen. Era beran, aurretik ere Los Cachiros kartelarekin lotu zuten. Kartel horrek lurraldeko droga-trafiko guztia kontrolatzen zuen eta buruzagiak estraditatu eta Estatu Batuetan espetxeratu zituztenean desegin zen. Kartel horren aurkako epaiketetan berriz agertu zen Tocoako alkatearen izena, bertatik dirua jaso zuelakoan. Azkenik, bere negozioen eta enpresen kudeaketa iluna susmagarria izan da beti, erosketa eta salmenta eztabaidagarriekin.

Hala eta guztiz ere, eta ziurrenik hau izango da Tocoako Alkatezkan egoteko arrazoia, Inversiones Los Pinares, ECOTEK eta, azken batean, Lenir Pérez eta Ana Facusseren EMCO Taldearekin dituen lotura estuak daude. Datu horiei esker hobeto ulertzen dira meatze-megaproiektuari laguntzeko ekintzak, tartean dokumentu publikoak

faltsutzea (2016). Dokumentu horietan Kabildo Irekiaren erabakiak islatu behar ziren, eta horietan egindako aldatetako ingurumen-baimenak eta meatze-eragiketako ematea errazten zuten. Era berean, 2018an, proiektu horren aurkako protesta soziala areagotu zenean, alkatezkan ingurumen-defendatzaile batzuk salatu zituen Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren aurrean.

Harreman politiko estuen artean, aurreko gobernuekin izandakoak ekarri behar dira gogora, baina baita gaur egungoarekin dituenak ere, ez bakarrik Gobernazio, Justizia eta Deszentralizazio ministroaren bitartez, egun gobernuan dagoen Libre alderdiko presidente ohi eta koordinatzaile Manuel Zelayaren bitartez eta bereziki bere anaia Carlos Zelayaren bitartez ere.

Harreman politiko eta ekonomikoaren agertoki honetan, garrantzitsua da Bajo Aguán bailaraz jabetzea eta eremua kontrolatzea lortu zuen Miguel Facussé Barjum zenaren figura une batez berreskuratzea. Facussé Barjum lurjabe handia da, Dinant Korporazioaren jabea, eta azken hamarkadetan etengabe egin zuen borroka lurrak eskuratu eta oliba palmondoa bailara osoan zehar hazteko. Gatazka horren ondorioz, nekazariak zokoratu eta pobretu zituzten, eta, kasu askotan, baita lurraldetik kanporatu ere. Bi datuk argi eta garbi erakusten dute luraren aldeko borrokaren egoera: batetik, 2014rako Dinant Korporazioak Afrikako lau mila hektarea palmondo baino gehiago zituen Bajo Aguán eskualdean; eta, bestetik, errepresio maila altu eta bortitza. 2010 eta 2014 urteen artean bakarrik, 150 nekazari bai-

Baina, nor da Adán Fúnez? Tocoako ia botereguztidun alkatea da 2006az geroztik

no gehiago erail eta desagerrarazi zituzten, herrixkak erre zituzten eta atxiloketak ugaritu, askotan tortura salaketekin; hori guztia lurraldean 8.000 soldadu baino gehiago zabalduz (Giada, 2023). Testuinguru horretan abiarazi zute Miguel Facusseren alabak eta suhiak

meatze-megaproiektua, kontsulta eta parte-hartze sozialik gabe. Horregatik, Bajo Agúan eskualdeko egungo gatazka guztiz ulertzeko, ezin da ahaztu lurralde honetan azken hamarkadetan nagusi izan den lurraren aldeko borroka.



Gatazka

Gatazka honen hastapenetan gertakari positibo bat dago: 2012an Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazional izendatu zuten. Izena esanguratsua da, 1997an lurralde horretan bertan ingurumenaren alde egindako borrokagatik eraildako aktibista baten omezez jarri baitzuten.

Hala ere, urrats itxaropentsu horren ostean ez ziren halako pauso gehiago iritsi espazioa babestu eta modu jasangarrian erabiltzea sustatzeko. Eremu menditsu honetan, hainbat baso eta 34 iturburu daude. Gehienak Guapinol eta San Pedro ibaietara isurtzen dituzte urak eta horiek Agúan ibaiarekin elkartzen dira. Horri esker, Hondurasko bailara emankorrenetako bat sortzen da, ia Karibe itsasoraino iristen dena.

2013an Meatzaritzari buruzko Legea onartu zenetik debekatuta dago eremu babestu gisa izendatutakoetan emakidak ematea. Hala eta guztiz ere, dagokion ministerioak horrelako katalogorik ez duenez, babes hori ez da herrialde osoan betetzen. Territorios en Riesgo III. (2021) txostenaren arabera, 2020an 78 meatze-proiektu zeuden eremu babestu horietan, 217 emakidarekin, guztira 131.515 hektarea (24. or).

Beste kasu batzuetan, txosten honek lantzen duena kasu, arazo horiek erauzketa-interesaren alde konpondu dira, gune nagusien hedadura murriztuz. Hala, 2013ko abenduaren amaieran, Porfirio Loboren lehendakari-tzako azken egunetan, Kongresu Nazionalak 252-2013 Dekretua onartu zuen, gunearen azalera 217,34 hekta-

reatara murriztuz. Hori da Inversiones Los Pinares mine-
raletan aberatsak diren lurra esploratzeko eta ustiatze-
ko behar duen eremua, ASP eta ASP2 izenez ezagutzen
direnak. 2014ko urtarrilean, modu biziki azkarrean,
erauzketa-enpresak meatze-emakida berrien onarpena
jaso zuen. Horrek erakusten du, gutxienez, botere lege-
gilearen, exekutiboaren eta
EMCO taldearen interes oli-
garkikoen arteko adostasun
estuak daudela.

Urte horietan, Colón depar-
tamenduan eta gainerako
eskualdeetan esplorazio-es-
kaerak eta era guztietako us-
tiapenak hedatu ziren, lege-
eta zerga-xedapen berriak
lagunduta. Karibeko departa-
mentu horretan soilik 59 izan
ziren 2015erako, eta Bajo
Aguánen, berriz, 34 inguru.
Zalantzarik gabe, erauzke-
ta-enpresa nazionalak eta
nazioartekoak orain Hondu-
ras osoa dute beren interesen
fokuan, izan meatzaritzarekin
lotutakoak, hidroeletrikeo-
arekin, nekazaritza-industria-
larekin edo beste. Quirózek
eta Cruz Vieyrak aipatu zuten
bezala, «2012rako, Hondu-
rasek 400 meatze-emakida
eman zituen» (ACAFREMIN,
2020, 21. or.).

Porfirio Lobo 2005eko hau-
teskundeetan Alderdi Nazio-
naleko hautagaia izan zen
eta Manuel Zelayaren aurka
galdu zuen. Hala ere, berak
irabazi zituen estatu-kolpearen osteko lehen hauteskun-
deak, eta Hondurasko presidente izan zen 2010 eta 2014
urteen artean. 2011n, agintari berriak «Honduras open
for business» (Honduras negozioei irekia) proposamena
aurkeztu zuen. Centro Hondureño de Promoción para el
Desarrollo Comunitario (Garapen Komunitariorako Hon-
durasko Zentroa) erakundearen zuzendari exekutibo Do-
nald Hernandezen arabera:

Eskaintza horren bidez estraktibistek baimenak azkar
lortu eta lurraldean emakidak jaso ahal izateko bal-
dintzak edo izapideak murriztu zituzten. Zama fiskalak
arindu zituzten eta jarduteko baimenak eman, Hondu-
rasko lurraldeak atzerriko inbertsioarentzako erakar-

garri bihurtzeko, batez ere meatzaritzaren eta ekoizpen
energetiko eta hidroeletrikeoaren arloan (ACAFREMIN,
2020, 20. or.)

Zalantzarik gabe, proposamen horrek herrialdearen
«salmenta-estrategia» uzten du agerian, eredu neoli-
beralaren inposaketa azkarren
bidez, bere alde ortodoxo eta
estraktibistarekin. Horrela,
estatu-kolpea gertatu eta urte
gutxira, Hondurasko lurralde-
aren % 30ak emakida-mailaren
bat zuen tokiko eta nazioarteko
erauzketentzat (García, 2016).

2015ean, Tocoako Comité Muni-
cipal de Defensa de los Bienes
Comunes y Públicos eratu zen
(Ondasun Komunak eta Publi-
koak Defendatzeko Udal Ba-
tzordea, aurrerantzean, Udal
Batzordea). Batzordeak mega-
proiektuari aurre egiteko pro-
testa sozialaren eta erresisten-
tziaren prozesua gidatu zuen,
hasieran soilik meatzeari lotuta-
koa ASP eta ASP2 kontzesioen
harira. Garrantzitsua da aipa-
tzea Udal Batzorde hau ez dela
antolaketa sozial soil bat; talde
sozial eta komunitario hetero-
geneoen konfederazio bezala
jokatzen du, ondasun komun
defentsan duen aniztasunak el-
kartuta (Demokraziarako Ikas-
keta Zentroa [CESPAD], 2023,
26. or.). Honako hauek osatzen
dute: San Pedro Sektoreko In-
gurumen Batzordeak (13 komu-
nitate), Abisinia Sektoreko Ba-

tzordeak (14 komunitate), nekazari-taldeak eta hainbat
erakunde, hala nola Aguángo Herri Erakundearen Koordi-
nakundea (COPA), Guapinol Komunitateko Ingurumen
Batzordea, San Alonso Rodríguez Fundazioa (FSAR) eta
Tocoako San Isidro Parrokiak berak. Azpimarratzekoa
da Udal Batzordean emakumeek duten lidergoa pro-
testa sostengatzerako orduan, erresistentzian eta po-
sizionamendu publikoan, proiektutik haratago joan den
etengabeko borrokan, eta eredu estraktibista bera eta
eragile desberdinen erantzukizunak lortu dituztela: en-
presak, tokiko erakundeak, Estatu bera... Horretarako
guztirako, Udal Batzordearen gakoetako bat beti izan
da parte-hartze sozial kontzientea sustatzea etengabe
informazioa jaso eta zabalduz.

*Agerian da
herrialdearen
«salmenta-
estrategia».
Estatu-kolpea
gertatu eta urte
gutxira,
Hondurasko
lurraldearen
% 30ak emakida-
mailaren bat
zuen tokiko eta
nazioarteko
erauzketentzat*



Gatazka gero eta gogorragoa

Udal Batzordea sortu zenetik meatze-proiektuaren aurkako etengabeko protestak izan baziren ere, Tocoako Alkatezari beste eskaera bat egin zitzaion: kontsulta komunitario bat abiaraztea, hau da, Tocoa Meatzaritzarik Gabeko Udalerri izendatzeko kabildo ireki bat.

Aipatu beharra dago Hondurasen parte hartzerako bi modaliterik zuzenenak eta egingarrienak plebiszitua eta kabildo irekia direla. Lehenengoaren alde egon litezke bai enpresa, bai haren aliatua, Alkatezari; izan ere, boto sekretuaren bidez egiten denez, nahiko erraz kontrolatu ahalko lukete; oso egingarria da haien bidez balizko bozketa baten emaitzak manipulatzeko. Hauteskunde nazionaletan egindako iruzur-salaketak gogoratu besterik ez da behar; beraz, udalerriri dagokionez, are errazagoa izango litzateke plebiszitu prozesua kontrolatzen duten erakundeentzat. Horren aurrean, Udal Batzordeak kabildo irekia egitea defendatu du beti, legezko aukera bat baita, herritarrek informatuta daude eta batzar eta kontsulta publikoa egiten da. Gauzak hala, 2017 eta 2019 artean, bost kabildo-eskaera egin zitzaizkion udalari, baina ez ziren aintzat hartu.

2018ko apirilean eta ondorengo hiru hilabeteetan, Guapinol ibaia kezka guztien erdigune bilakatu zen. Herriarren arabera, Inversiones Los Pinares enpresak, bere meategirako bidea egitean, sedimentuak isuri zituen


ibaira, eta hiru hilabetez ur lohitsu iritsi zen inguru horretako etxeetara, eta ezinezkoa izan zen bertakoentzat kontsumitzea, hainbat gaixotasun hartzeko arriskua handia baitzen. Momentu horretan, protesta areagotu zen, eta kontsultatu gabeko meatze-megaproiektuaren aurkako gatazka sozialaren fase berri eta zorrotz bati ekin zitzaion.

*2018ko
apirilean eta
ondorengo hiru
hilabeteetan,
Guapinol ibaia
kezka guztien
erdigune
bilakatu zen*

2018ko ekainean, Udal Batzordeak Tocoako Alkatezari hamar eguneko hartu zuen, kabildo irekia egiteko eskatzeko. Baina ez zen lorpenik egon. Data horietarako agerikoa zen tokiko erakundeak, eta bereziki alkateak, harreman estuak zituztela Inversiones Los Pinares enpresarekin eta EMCO taldearekin. Udal-espazioa hartzean, Parke Nazionalerako meatze-enpresari bidea ixteko ideia sortu zen, herriaren presioaren beste elementu baten gisan; hala, abuztuaren 1ean, enpresako makinak eta gainerako ibilgai-

luak Botaderos mendira eta meategien ustiapen-eremura sartzeko bidea blokeatu zen.

Uraren eta Bizitzaren Defentsarako Guapinol Kanpamenduak jazarpen mota ezberdinak jaso zituen hurrengo hiru hilabeteetan zehar, horien artean, meatze-enpresaren segurtasun guardia pribatuen partetik zetozen tiroak, betiere indar polizialek, aktiboki edo zeharka, ez entzunarena egiten zuten bitartean. Esaterako, irailaren 7an, kanpamenduan zegoen kide bat su-armaz zauritua



izan zen, eta inoiz ez da gertae-
ra hori ikertuko.

2018ko urriaren 27an, 1200 po-
liziek eta soldaduk eraso egin
zioten kanpamenduari, eta 500
lagunen erresistentzia bake-
tsuaren aurrean desegin zuten.
Hortik aurrera, errepresio-, kri-
minalizazio-, atxiloteta-, espe-
txeratze- eta hilketa-prozesuek
maila berri batera heldu ziren,
eta Bajo Aguáneko lurralde
osoan areagotu eta hedatu zi-
ren.

Kanpamenduak iraun zuen 88
egunetan zehar, egunero 140
pertsonek sostengatzen zute-
la, Udal Batzordeak adierazi
zuen gatazka horren guztiaren
eskaera nagusiak zirela: mea-
tze-ustiapena etetea, Bota-
deros mendiko nukleo-gunea
murriztu zuen 252-2013 dekretua bertan behera uztea
eta kontsulta komunitarioa egitea. Udal Batzordeko kide
batek, 252-2013 dekretua bertan behera uzteak zuen ga-
rantziari dagokionez, adierazi zuen:

Horrekin, Parke Nazionalaren eremua askatzen da, eta
parkea sortzeko dekretuaren espiritura itzultzen gara.
Eta horrek ibaien existentzia bermatzea ahalbidetzen
digu. Hemen, azpian dagoen gaia ura da. Horretara hel-

*Guapinol
Kanpamenduak
jazarpen
mota ezberdinak
jaso zituen
hurrengo hiru
hilabeteetan
zehar, horien
artean,
segurtasun
guardien tiroak*

tzeko, Meatzaritzarik Gabeko
Udalerrri gisa deklaraturata iza-
tea behar dugu, eta hori uda-
len legean ezarritako ekintza
publiko legal batean gauza-
tuko da: kabildo ireki batean
(ACAFREMIN, 2020, 28.or).

2019ko urtarrilean, bi muga-
rri garrantzitsu gertatu ziren
megaproiektu estraktibistaren
aurkako protesta sozialeko eta
kriminalizazioko prozesu hone-
tan. Alde batetik, Udal Batzordeak
Uraren eta Bizitzaren aldeko
Udal Gailurra deitu zuen.
Kontsulta irekiaren deialdiari
alkateak emandako beste eze-
ko baten ondoren, hiru mila
lagunetik gora batzarra egin
zuten Tocoan, partaidetza so-
zialerako duten eskubidea gau-
zatzeko. Berriz ere, ASP eta
ASP2 emakidetakako baimenak

eta lizentziak bertan behera utzi ziren.

Gatazkaren beste aldean, 2019ko lehen asteetako biga-
rren mugarrira 31 defendatzaile atxilotzeko aginduak dira.
Horrek hasiera eman zion lurraldea, ura eta bizitza defen-
datzen dutenen kriminalizazio-, jazarpen- eta espetxera-
tze-prozesu gogorrari, baita kontsulta eta parte-hartze
sozialerako eskubideari ere. Atxilotze-agindu horiek bi
prozesu judizialari eman zieten hasiera. Lehenengoa, San

Pedro eta Guapinol sektoreetako lurraldeetako lidergoen aurkakoak. Hilabete batzuk geroago amaitu zen, 13 defendatzaileen aurkako prozesua artxibatuta. Bigarrenak, ondorio larriagoak izan zituenak, 8 pertsonari eragin zion zuzenean, 914 egunez egon baitziren arbitrarioki espetxeratuta (Vijil Saybe, L., 2023ko irailaren 7a).

Inoiz gertatu behar ez zen prebentziozko espetxealdi baten bi urte luzeren ondoren, 2022ko otsailaren 6an, auzitegiak kondena-epai bat eman zuen, eta berehala errefusatu zuten nazioarteko hainbat erakundek, besteak beste, Amnesty International-ek, zeinak eskandalagarritzat zuen. Azkenik, hil bereko 24an, Justiziako Gorte Gorenak epaiketa baliogabetu zuen, eta adierazi zuen epaiketa ez zela inoiz gertatu behar.

2020ko martxoan, Nazio Batuetako Atxiloketa Arbitrarioei buruzko Lantaldeak onartu zuen atxiloketak legez kanpokoak zirela, eta atxilotuak berehala askatzeko gomendatu zuen. 2021eko azaroan, Mary Lawlor Nazio Batuen Erakundeko giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko errelatore bereziak adierazi zuenez, «NBEko Giza Eskubideen Kontseiluko kide berria den heinean,

Hondurasek ahalegin handiagoak egin behar ditu herrialdean giza eskubideen egoera hobetzeko. Lehenengo urratsa Guapinoleko defendatzaileak askatzea izango litzateke». (Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa [OHCHR], 2021).

Agerikoa da eskaera horietako bat ere ez zuela berehalako efekturik izan, baina segur aski hilabete batzuk geroago Justizia Gorte Gorenak hartutako erabakian eragina izango zuen.

Guapinoleko 8 defendatzaileen kasuan bakarrik (izen horrekin ezagutu zen nazioartean kriminalizatzeko eta

justizia argi eta garbi bidegabea emateko prozesu hori) urratutako eskubideen zerrenda egin beharko balitz, benetan luzea izango litzateke: karguei buruz behar bezala informatua izateko eskubidea, arazoizko epean epaituak izatekoa, prebentziozko espetxealdien berrikuspen judiziala egitekoa, auzitegi aditu bat izatekoa (bizilekutik gertu), errugabetasun-presuntzioarena, edo delitu beragatik zehapen bikoitza debekatzeko bermearena. Hori guztiari gehitu behar zaio elkartzeko, modu baketsuan biltzeko eta adierazteko askatasuna eta osotasun fisiko eta psikikoa (University of Virginia School of Law International Human Rights Law Clinic, 2020, 28. or.).

*Errepresio-,
kriminalizazio-,
atxiloketa-,
espetxeratze- eta
hilketa-prozesuek
Bajo Aguáneko
lurralde osoan
areagotu eta
hedatu ziren*



Kriminalizazioa eta errepresioa

Enpresa estraktibistek eta Estatuko instituzioek komunitateetan lurralde-erresistentziaren jardue-
ra geldiarazteko gehien erabiltzen duten strate-
gietako bat ondasun komunen defendatzaileak
kriminalizatzea eta judzializatzea da, eta horrela
gizarte-mugimendua behartzen dute beren inda-
rrak eta arreta gatazken jatorritik desbideratzera.
(Vijil, Saybe L., 2023ko otsailaren 1a).

Aurreko aipuak 2019ko lehen hiletatik bereziki Guapinol
kasuan jazo ziren gertaeren segida laburbiltzeaz gain,
kaltetutako herritarren aurkakotasunarekin ezartzen di-
ren Latinoamerikako proiektu estraktibista ia guztietara
heda liteke.

Guapinolen, beste ehunka kasuetan bezala, errepre-
sio prozedurak erraz identifika daitezkeen patrioiak ditu.
Akusazioak, beharrezko frogarik gabe, oso delitu larriak
ezartzeraino heltzen dira, zein-
tzuek, nolabait, prebentziozko
espetxealdia justifikatuko luke-
ten: enpresako langileak legez
kanpo atxilotzea, makinak au-
rrez pentsatuta erretzea, tres-
nak lapurtzea eta akusaziorik
eginena, duen larritasunagatik,
legez kanpoko elkartea izatea.

Atxiloketen ondoren, hurrengo
urratsa kasu judiziala lurral-
detik ateratzea da; hiriburura,
Tegucigalpako auzitegi berezi
batera, lekualdatzen da, zeinak
estortsio, droga-trafiko eta bes-
telako krimen antolatuen ka-
suetan bakarrik jarduten duen.
Horrela, bi helburu lortu nahi
dira: alde batetik, kasua bere
espazio naturaletik ateratzea,
epaileek kasua eta, are, pertso-
nak sakonki ezagutzeak krimi-
nalizazio prozesua zaildu ahal-
ko lukeelako; eta bestetik, iritzi publikoan eragina izatea,
akusazioen larritasunari eta akusatuak arriskutsuak izat-
eari dagokionez, duten larritasunagatik bereziak diren
delituetarako diren auzitegiaren epaituak izan baitira.

Gogorarazi beharra dago, beste txosten askotan adierazi
bezala, protestaren kriminalizazioak dakarrela «talde so-
zial pribilegiadunek sistema legala eta penala erabiltzea

giza eskubideen eta ingurumenaren defendatzaileek egi-
ten duten lana ez-zilegitzat edo ilegaltzat jotzeko» (CIDH,
2015: 451). Eta hori izan zen, hain zuzen, Hondurasko Es-
tatu erantzuna meatze-enpresaren interesak defendatze-
ko duen konpromisoari dagokionez. Baina betiere ahaztu
gabe prozedura horietan beharrezkoak diren beste eragi-
le batzuk ere aritzen direla: epaitzaren elementu zeha-
tzetatik komunikabideetarako, indar polizial eta milita-
rrak barne. Are gehiago, kasu batzuetan, narkotrafikoari
eta/edo krimen antolatuari lotutako eragileak dira, klase
politiko tradizionalaren zati baten eta elite ekonomikoen
hurbilekoak diren ustelkeria eta zigorgabetasun interesak
dituztenak.

Eragile horietako batzuk funtsezkoak dira komunikatzaile
herrikoikiak, erakundeak eta defendatzaileak estigmatiza-
tzeko, difamatzeko, jazartzeko edo gutxieteko kanpai-
nak hasteko eta zabaltzeko. Hori guztia kriminalizazio
judizialarekin bateratutako
estrategia baten bidez egiten
da. Estrategia horren helburua
defendatzaileen gaineko pre-
sio zuzena areagotzea da, eta
protesta-mugimendu osoaren
gaineko zeharkako presioa, ho-
riek nekatu, beldurtu eta dese-
gin arte.

CIDHK, 2019ko abuztuaren
27an Hondurasi buruz onar-
tutako txostenean, ohartarazi
zuen sare sozialak eta bestela-
ko informazio euskarriak eten-
gabe erabiltzen direla giza es-
kubideen defendatzaileei mezu
estigmatizatzaileak eta desle-
gitimatzaileak zabaltzeko, eta
gaineratu zuen gizarte zibileko
erakundeek Batzordeari adie-
razi ziotela giza eskubideen
defendatzaileak «kriminalak»,
«narkotrafikatzaileak», «terro-
ristak», «garapenaren aurkakoak», «narko-buruzagiak»
direla, besteak beste. (CIDH, 2019: 381).

Hainbat arrisku dituen egoera hori are larriagoa da kal-
tetuak emakume defendatzaileak direnean. Jazarpen
penalari, estigmatizazio-kanpaini edo kriminalizazio
-prozesuei emakumeen aurkako indarkeria matxistek
dakartzaten espezifikotasuna gehitu behar zaie. Hala ai-

*Akusazioak,
beharrezko
frogarik gabe,
oso delitu larriak
ezartzeraino
heltzen dira,
prebentziozko
espetxealdia
justifikatzeko*



tortzen du, beste eragile askoren artean, CIDHK, Honduraseren in loco egindako bisita baten ondoren, honako hau adierazi baitzuen:

Lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen dutenek arrisku handienei aurre egin behar diete. Arrisku horiek larriagotu egiten dira emakumeak, pertsona indigenak eta/edo afro-ondorengoak direnean, generoagatiko, etniagatiko eta/edo arrazagatiko diskriminazio-modu interseksionalen ondorioz, bai eta bazterketa- eta marjinazio-faktoreen ondorioz ere (CIDH, 2023, 7. or).

Estraktibismoaren aurkako eta giza eskubide kolektibo zein indibidualen eta naturaren eskubideen aldeko protesta sozialeko prozesu hauetan, emakumeak zein gizonak kriminalizatzen dira, baina lehenengoei, gainera, leporatzen zaie gizarte patriarkalek ezarri eta mugatutako rol tradizionalak ateratzea. Horregatik, indarkeriak espezifikoa dira, emakume defendatzaileak izateagatik: eraso sexualak, difamazioak eta estigmatizazioa. Hondurasko Defendatzaileen Sare Nazionalaren txostenaren arabera (2023), «zorigaitzoko 2016an Berta erail zutenetik, 2023ra arte, 27 emakume defendatzaile hil dituzte» (9. or). Txosten horretan beste datu batek ere pizten du arreta: «emakumeen jasan dituzten eraso % 76 lurra eta lurraldea defendatzen dutenen aurkakoak izan dira, horietako gehienak indigenak, garifunak eta nekazariak izanik» (24. or).

Egoera horren guztiaren emaitza, espetxeratze, jazarpen eta hilketez gain, defendatzaileei eta komunitateei eragiten dien inpaktu fisiko, ekonomiko eta psikosoziala da. Ikuspegi horretatik hobeto ulertzen da defendatzaile batzuen desplazamendu behartu ikusezina; izan ere, jasaten duten era guztietako presio, jazarpen eta mehatxuen

aurrean, haietako askok, bakarrik edo beren familiekin, lurraldetik eremu seguruagoetara irtetea aukeratzen dute, bai Hondurasen bertan, bai atzerrira. Bitartean, erazketa-enpresak lanean jarraitzen du; izan ere, kriminalizazio-prozesu horien helburua, lehen esan bezala, protesta-mugimenduaren indarrak gatazkaren sorburutik desbideratzea da, enpresak bere lana finkatzen eta jarduten jarrai dezan.

Alde batera utzi ezin daitekeen elementu bat enpresak hasiera-hasieratik abiarazten duen liderren, komunitateen eta pertsonen kooptazioa da. Esate baterako, San Pedro Sektoretik Parke Nazionalan meategira bidea irekitzeko lehen saiakerak porrot egin ondoren, Inversiones Los Pinares enpresak beste komunitate batera jo zuen, La Ceibitara, non tokiko garapenerako elkartearen kooptazioaren ondoren baimena zuen. Komunitate horretan, tokiko eskolaren hobekuntzari eta azpiegitura komunitarioari eta enpleguari lotutako promesen artean, segurtasuneko guardia armatuak kontratatu zituzten, eta La Ceibitako Zaintza Iraunkorreko Batzordea (COVIPERCE) osatu zuten, enpresaren zerbitzura, sikariatotik hurbil daudela esan daitekeen ekintzekin. Besteak beste, Uraren eta Bizitzaren aldeko Guapinol Kanpamenduaren etengabeko jazarpenean eta erasoetan parte hartu baitzuten.

Baina ezin da inoiz ahaztu prozesu hauetan aukera erraza dela amore ematen dutenei edo kooptazio hori onartzen dutenei errua egozte. Hala ere, dagokien erantzukizuna kendu gabe, gogorarazi behar da jarduera estraktibista horiek oinarritzko beharrak betetzen ez diren lurraldeetan egiten direla, eta herritarren pobretzea eta bazterketa orokorra dela; beraz, «garapeneren» diskurtsoak eta borondateen kooptazioak rol garrantzitsua dute. Tokiko zein nazioz gaindiko enpresek badakite, eta horren arabera jarduten dute, bai eremu indibidualean zein kolektiboan.

Urrats berriak

Zalantzarik gabe, 2019a funtsezko urtea izan zen Bajo Aguán bailarako meatze-megaproiektu honetan. Eragin frogagarria izan zuen Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazionalaren inguruan, bertako ibai eta iturrietatik igarota, eta proiektu estraktibista geldiaraztea eta Bajo Aguáni eragiten dioten erabakietan benetan parte hartzea eskatzen duen oposizio- eta erresistentzia-mugimendu sozialera iritsi zen.

Urte horretan bertan, megaproiektuak dimentsio handiagoak hartu zituen, pellet fabrikak eta instalazio termoelektrikoak lehen urratsak eman baitzituzten. Horrela, mehatxu berriak agertu ziren, bereziki industria horiek ura gehiegi erabiltzearekin eta petrolio-kokea erretzearekin zerikusia dutenak; izan ere, lehen esan bezala, oso erregai kutsagarria eta zikina da, eta, gainera, horren erabilera ez dago araututa Hondurasen. Garrantzitsua da gogoratzea eta beste behin salatzea sistema zapaltzaileak, krisi klimatikoaren aurrean nazioarteko komunitateari egindako eskaerak gorabehera, gehien kutsatzen duten enpresek Hegoalde Globaleko herrialdeetan jarduten jarraitzea ahalbidetzen duela, eta horrek tokiko biztanleentzat eta baita planetarentzat ere ondorio kaltegarriak eragiten dituela.

2019ko azaroan zerbait positiboa gertatu zen: Kabilo Irekia deitu eta egin zen. Emaizak ez zuen zalantzarik utzi eta Tocoa Meatzaritzarik Gabeko Udalerri izendatu zuten. Baina faktore batek ez zuen guztiz ospatzeko aukerarik eman; izan ere, alde batetik, parte-hartzea ez zen bere iritzia eman nahi zuen mundu guztiarentzat irekia izan, eta mahai nagusiko kideek bakarrik egin zuten, eta hori adierazpen-eskubidea eta parte-hartzerako eskubidearen aurka doa (mahai horretan Adán Fúnez alkatea, Manuel Zelaya Hondurasko presidente ohia eta hainbat diputatu nazional eseri ziren). Bestalde, izendapenak ez zuen atzeraeginezko izaerarik izan, eta beraz, hasieran ez zuen eraginik izan ASP eta ASP2-ren meatze-emakidetan. Azken hori Kongresuaren erabakiaren esku geratu zen. Kontuan izan behar da kabildoaren emaitza udal-le-

ge bihurtzen dela, eta instantzia horrek ematen dituela urtero jarduteko baimenak. Hala ere, 2019ko kabildoaren emaitzarekin, Udalbatzak ezingo zuen jarduteko baimena berritu 2020tik aurrera (Giada, 2023). Ikus daitekeenez, Inversiones Los Pinares enpresak aurrera jarraitu zuen meatze-jardunarekin, eta, lehen esan bezala, pellet fabrika eta instalazio termoelektriko bana eraikiko zituela iragarri zuen, bere propagandak dioen bezala, «altzairuaren ekoizpenean Erdialdeko Amerikako enpresarik handiena» izateko (Criterio, 2019).

Gatazka geroz eta gogorragoa zen, eta 2022 eta 2023 urteetan zehar; defendatzaileen aurkako kriminalizazioaz eta jazarpenaz gain, Bajo Aguán bailarako Udal Batzordeko eta beste erakunde batzuetako hainbat kide erail zituzten. 2023ko urtarrilaren 7an Aly Domínguez eta Jairo Bonilla defendatzaileak hil zituzten tiroz; 10 egun geroago, Omar Cruz, Colóneko Nekazarien plataformako burua, eta bere aitagarreba hil zituzten. Urte horretan bertan, ekainean,

Udal Batzordeko kide zen Oqueli Domínguez erail zuten, eta bere ama zauritu. Azpimarratu behar da Aly eta Oqueli Domínguez espetxeratutako Guapinoleko defendatzaileetako baten anaiak direla.

Jakina, ez zen ikerketarik egin, eta zigorgabetasun ehu-nekoak Hondurasen altuak baziren, heriotza horiek are gehiago puztu zituzten. Indar polizialek delitu arruntei egozten konpondu ohi dituzte krimen horiek; hala, erailketen aurrean, Polizia Nazionalak Colónen duen bozemaileak adierazi zuen «bartzertzen zuela krimenak ingurumenarekin zerikusia izatea», nahiz eta ez zituzten eraman gainean zeukaten dirua eta sakelakoak, eta behin hilda ere tiroz jo zituztela buruan. (Mahtani, N. 2023ko urtarrilaren 13a. Jairo Bonilla y Aly Domínguez, los primeros ambientalistas asesinados en 2023. El País).

Sikariato eta zigorgabetasun jardurekin zerikusia duen egoera horren aurrean, argigarria da Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziaren aipu bat:

*2019an
megaproiektuak
dimentsio
handiagoak
hartu zituen,
pellet fabrikaren
eta instalazio
termoelektrikoaren
lehen urratsekin*

Ekintza horiek Polizia Nazionalako eta Armadako kideak, kontratatutako hiltzaileak eta identifikatu gabeko subjektuak egin zituzten. Halaber, funtzionario publiko ustelek, enpresa pribatuak eta sektore pribatuko segurtasun-indarrek erasoak bultzatu zituzten, irabaziak lortzeko. Giza

eskubideen defendatzaileei zuzendutako hilketa eta eraso gehienak ez dira ikertzen eta zigorrik gabe geratzen dira; egiten diren ikerketa urriek normalean ez dute erantzulerik aurkitzen. (Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa [OHCHR], 2019, 8. or.).



Narkoestatua eta estraktibismoa

2014 eta 2022 urteen artean, Juan Orlando Hernández JOH bi aldiz izan zen Hondurasko presidente. Bere aurrekoak, Porfirio Lobo, Honduras negoziorei irekita zegoela aldarrikatu zuenak, 2017tik zuen Fabio, bere semea, Estatu Batuetan narkotrafikoagatik 24 urteko espetxealdira kondenatuta. Bestalde, Tony Hernández, JOHren anaia, Kongresu Nazionalako diputatua izan zen 2014 eta 2018 urteen artean. Azken urte horretan, Miamin atxilotu zuten, eta 2019an, beste akusazio batzuen artean, droga-trafikoagatik epaitua izan eta gero, biziarteko zigorra eta hogeita hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

Aurrekari horiekin, 2022an JOHk presidentetza utzi zuen, zortzi urteren ondoren. Geroago, narkotrafikoagatik epaitu eta Estatu Batuetara estraditatu zuten, eta hala, Juan Orlando Hernández Estatu Batuetan 1992tik epaitua eta kondenatua izan den lehen presidentea izan

zen, Manuel Antonio Noriega panamarra kondenatu zutenetik.

Akusazioak aurkeztutako hiru kargurekin du zerikusia: Estatu Batuetara kokaina inportatzeko konspirazioa, narkotrafikorako su-armak eta gailu suntsitzaileak edukitzeko konspirazioa, eta horrelako armak edukitzea narkotrafikoaren konspirazioan zehar. Oraindik ez dute zigorra ezarri, baina JOHk aukera asko ditu anaiak duen zigor bera jasotzeko, biziarteko kartzela-zigorra, alegia.

Egoera horiek guztiek agerian uzten dute 2009an Manuel Zelayaren aurkako estatu-kolpearen ondorengo hamarkada luzean Honduras narkoestatu bihurtu dela. New Yorkeko epailetan aurkeztutako testigantza baten arabera, «krimen antolatuko taldeek kanpaina politikoak finantzatu zituzten eta Estatuako segurtasun inda-

erak droga kargamentuak babesteko eta talde arerioen eta Hondurasko herritarren aurkako indarkeria pizteko erabili zituzten». (Prensa Comunitaria, 2024)

Bada, egoera horretan garatu da Guapinol kasua, eta, horrela, errazagoa da ulertzea zer testuinguru globalean hazten den megaproiektu estraktibista hau, txosten honetan adierazitako ondorio guztiak izan dituen. Estatuko agintari nagusiek narkotrafikatzaile gisa jardun badute, nola babes ditzakete Hondurasko herritarren eskubide sozial, politiko eta ekonomikoak?

Badira Guapinoleko gatazkaren bultzatzaile gisa nabarmendu nahi ditugun zenbait elementu, baina aitor-tuz narkoestatuaren esparruaren mende geratzen direla

erabat eta esparru horretan ulertu behar direla. Ez da kontsulta-prozesurik egon, ez da herritarren parte-hartzea ahalbidetu, eta agintariak ez dituzte hainbat erabaki kontuan hartu, Tocoa Meatzaritzarik Gabeko Udallerri izendatzea kasu. Aitzitik, erantzuna giza eskubide kolektibo eta indibidualen urraketaekin lotuta egon da beti, eta protesta sozialean egon direnen aurkako judizializazio, kriminalizazio, jazarpen, eta hilketak prozesuak artikulatu eta garatu dira. Bestalde, ustelkeria eta zigorgabetasun sareak agerikoak izan dira, bai tokiko administrazioaren maila baxuetan, eta baita Estatu-koetan ere. Azkenik, Estatuak ez du inolako ardurarik hartu naturaren eskubideen babesari eta zaintzari dagokionez.

Estatu estraktibistaren azpijoko politikoa

Eredu neoliberalak ezartzen duen esparruan, proiektu estraktibista oro ez da proiektu ekonomiko hutsa, eta are gutxiago, nahiz eta eragindako biztanleen (tokian tokioen zein nazionalen) bizi-baldintzak, garatzeko eta hobetzeko asmoarekin aurkeztu. Hori produktuaren propagandaren, justifikazioaren eta «salmentaren» parte izan ohi da, errealtatearen erantzuna baino gehiago. Hala, benetako helburua irabaziarekin eta eta horrelako proiektuen sustatzaile eta jabe diren elite ekonomikoentzako onurak sortzearekin lotuta dago, giza eskubide kolektibo eta indibidualen zein naturaren eskubideen kontura.

Helburu horietarako, eredu estraktibistak harreman- eta adostasun-sare trinkoak ehuntzen ditu beste eragile batzuekin, eta eragile horiek, era batera edo bestera, Estatuko botereen eta txandakako gobernuen parte dira. Txosten honetan aipatu dira, neurri handi batean, sistema judizialeko elementuekin, komunikabideekin, indar polizia eta militarrekin eta haien interesak babesteko beharrezkoak izan daitezkeen Estatuaren egitura instituzional guztiekin eragindako aliantzak.

Guapinol kasuari dagokionez, Hondurasko oligarkiako kide izateaz gain, EMCO taldeak azken hamarkada hauetan gobernuekin izan dituen harreman estuak aipatu dira, izan Juan Orlando Hernándezenarekin, gaur egun Estatu Batuetan narkotrafikoagatik zigortua, edo gaur Xiomara

Castro buru duenarekin, kasu honetan, Gobernazio, Justizia eta Deszentralizazio ministroaren bitartez. Ildo horretan, Guapinol kasuan Tocoako Alkatetzarekiko kooptazioak eta aliantzak duen garrantzia ere aipatu da, eta aurrerago horri buruz ere hitz egingo da txosten honetan.

Baina, udal botereekiko azpijoko horietan gehiago sakondu aurretik, garrantzitsua da oro har ikusezinak diren beste alderdi batzuk aipatzea.

Edozein proiektu estraktibistari dagokionez, beharrezkoa bere ondorioez hitz egitea; pertsonen, herrien eta naturaren gaineko ondorioez. Era berean, kriminalizazioaren arrazoia jatorrizko arazoaren fokua desbideratzea eta desmobilizatzea dela aipatu den ildo horretatik, garrantzitsua da orain eta hemen egotea, erantzukizunetatik ez desbideratzea. Gatazka honetan bi erantzule-talde nagusi nabarmentzen dira. Batetik, Inversiones Los Pinares eta ECOTEK enpresak, bai eta horiek osatzen duten taldea bera, EMCO Holding, eta horren jabeak. Herrialdearen garapen eta hazkunde ekonomikoarekiko etengabeko kezka adierazten badute ere, haien lehen interesa ahalik eta onura gehien lortzea da, nahiz eta horrek giza eskubideak eta natura zapaltzea ekarri. Erantzukizun handienera beste eragile-taldea Estatu bera eta Estatu osatzen duten eta jardun horietan parte hartzen duten erakundeak dira, baita zuzenean inplikaturako elite politikoak ere, as-



kotan Estatuaren egiturarekin bat egiten dutenak. Estatuaren jarrera honela defini liteke: enpresa-interesen konplizitatea eta babesa. Hala ere, batzuk zein besteak megaproiektu estraktibistek dakartzaten gizar-te-ehuna haustearen, gatazka sortzearen eta larriagotzearen, justizia arbitrarioa ezartzearen, giza eskubide kolektibo eta indibidualen eta naturaren esku-bideen urraketa guztien erantzule dira.

Egoera honetan, Alkatetzak eta beste eragile batzuek kabildo irekirako egindako kanpainak Udal Batzordearen aurkako eraso zuzenak barne hartzen ditu: desplazamendu behartuarekin lotutako mehatxuak, eroskeria, larderia, familia behartsuenei, proiektuaren alde egon ezean, «bonu solidarioa» ez kobratzeko mehatxuak... (CESPAD, 2023). Gainera, CIDHK, 2023ko urriaren 5ean, kautelazko neurriak hartu zituen Udal Batzordeko 31 pertsonentzat, baina Estatuak ez zituen neurri horiek bete, ez baitzituen beharrezko aldaketak egin defendatzaile horien segurtasun fisikoa eta integrala bermatzeko, eta horrek babesgabetasuna ekarri zuen pertsona horien bizitzarako.

Estatuaren jarrera honela defini liteke: konplizitatea eta enpresa-interesen babesa

Aldi berean, pellet-instalazioan erregai gisa petrolio-kokea erabiltzeak osasunerako dakartzan arriskuak txikiagotu eta ezkutatu nahi ziren. Gainera, instalazio horrek efektu negatiboak izan zituen lurraldean hasiera-hasieratik:

Pellet fabrikak ibaiari egindako kalteak instalazioa erai ki zenean hasi ziren. Izan ere, bulldozer motako makina astunekin eraiki zuten, ur-iturria zeharkatzean olio, sedimendua eta, batzuetan, erregai jarioak isurtzen zituena (Estrada René, 2022 otsailaren 10a).

2023ko azaroan, Udalbatzaren agendan kabildoaren deialdi irekia programatu zen, instalazio termoelektrikoaren proiektua onartzeko helburuz. Hala ere, deialdia atzera bota zen, ez zegoelako herritarrek modu kontzientean eta informatuan parte hartzeko bermerik. Gogoratu beharra dago instalazio termoelektrikoa funtsezkoa zela meatze-megaproiektu osoarentzat; izan ere, Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazionalako ASP eta ASP2 emakidetatik ateratako burdin oxidoa pellet bihurtuko duen fabrika martxan jartzea ahalbidetuko zuen.

Instalazio termoelektiko horrek, era berean, Guapinol, San Pedro eta Quebrada La Ceibita ibaietako ur-kantitate handiak erabiliko ditu, eta, jakina, Bajo Aguán lurraldeko lurrek, eta bereziki, bertan bizi diren komunitateek ezin izango dute ur hori erabili. Termoelektikoa zonaldeko garapen eta hazkunde ekonomikorako beste urrats bat gisa

aurkezten da, biztanleei energia emango diena, kabildoaren onespina lortzeko asmo argiz. Hala ere, jakina da eskaintza hori propaganda besterik ez dela, lehen fase batean instalazio termoelektikoak 25 MW inguru ekoiziko lituzkeelako, eta pelletizatzaileak bakarrik 18 MW baino gehiago beharko dituelako.

Herri Batzarrak termoelektikoaren proiektua baztertu zuen

15 egun geroago, Udaltzaren hurrengo bilkuran, Adán Fúnez alkateak berriro ere kontsultarako aurkeztu zuen kabildoaren deialdia, eta onartu egin zen. Hortaz, 2023ko abenduaren 9an egin zen kabildoa.

Herritar antolatuek kabildora joan ziren, Udal Batzordearen zein Udaltzaren parte hartzea masiboa izan zen, alkatea baino ez zen falta. Komunitateek proiektuari, termoelektikoari, ez esan zioten, eta bai bizitzari, ingurune osasuntsu bati. Hala ere, alkateak, gertatzen ari zena ikusita, kabildoaren garapena etetea erabaki zuen, Udalen

Legea urratuz. Lege horren arabera, Udaltzaren (alkatearen eta erregidoreen) ahalmena da deitutako kabildo baten garapena onartzea edo etetea.

Egoera horren aurrean, bertaratutako pertsonak Herri Batzarra eratu zuten, eta termoelektikoaren proiektua baztertua erabaki zen; Udal Batzordeak hainbat erakunderi, Udaltzari barne, aurkeztu dien notario-akta bat egin zen. Bertan, akta hori homologatzeko eta Udalaren akta-liburuan sartzeko eskatu zuten, Tocoa udalerriko biztanleen erabakia baita.





Kabildoa iruzurra da

Alkateak erabaki zuen beste kabildo bat deitzea 2024ko urtarrilaren 31n; eta hori aurrera ez eramateko, Udal Batzordeak babes-errekurtsoa aurkeztu zuen Tocoako Letren Epaitegian. Bertan azaldu zuenez, abenduaren 9an Herri Batzarrean erabaki bat hartu zen, eta alkateak kabildoa bertan behera utzi zuen bere ahalmena izan gabe. Hilabete geroago, Epaitegiak ez zuen babes-errekurtsoa onartu, eta Udal Batzordea behartu zuen apelazio-errekurtsoa jartzera La Ceibako Apelazio Gortean, Atlantidako departamentuan, eta bertan berretsi egin zuten Zoé Guifarro Tocoako Letren Epaitegiko epaileak hartutako erabakia. Komunitateen eskubideen urraketa argi horren aurrean, Udal Batzordeak salaketa jarri zuen Tocoako epailearen eta La Ceibako Apelazio Gortekeko magistratuen aurka, Justizia Gorte Goreneko Auzitegien Ikuskaritzan.

Hilabete batzuk geroago, alkateak Udalbatza eta zenbait komunitate deitu zituen ekainaren 13rako kabildo ireki batera La Ceibita komunitatean, baina Udalen Legeak zehazten dituen epeak kontuan hartu gabe. Udal Batzordeak babes-errekurtsoa aurkeztu zuen, berriz ere, Justiziako Gorte Gorenaren konstituzio-arloko salan, eta inpuñazio bat Departamentuko Gobernazioan

(udal-alkatetza guztiak arautzen dituen instantzia); eta ekainaren 12an, Gorteak ebatzi zuen ez zela kabildo egin behar, eta dagokion jakinarazpena ere bidali zion Baliabide Naturalen eta Ingurumenaren Idazkaritzari (SERNA). Jakinarazpen hori ez zen garaiz iritsi Tocoara, ekainaren 14an baizik, hau da, kabildo baina egun bat geroago, eta, beraz, kabildo gauzatu zen.

Kabildoan, alkatea, 3 erregidore, patronatu gisa jardun zuten 4 pertsonen partaidetzarekin (enpresaren onuradunak zirenak), termoelektrikoaren proiektuaren alde agertu ziren. Hala ere, kabildo horretan ez zuten Guapinoleko patronatuaren, La Lempirako Nekazarien Kokalekuaren eta denbora guztian erresistentzian egon diren beste komunitate batzuen ordezkariarik parte hartzen utzi.

Enpresak kaltetutako komunitateen parte-hartzea masiboa izan zen, eta proiektua onartzeari uko egin zioten, ez baitziren kabildoan kontuan hartuak izan. Horrek erakusten du ez zela herri-kontsulta bat izan, baizik eta alkateak instalazio termoelektrikoaren proiektua onartutzat jotzeko erabakia hartu zuela, gutxiengo nabarmenarekin. Bestalde, kabildo lege kanpoko izan zen, Gorteak eta SERNAK bertan behera utzi baitzuten.



Oraindik ez da amaitu...

Aldi berean, 2024ko otsailean, Hondurasko Kongresu Nazionalak 18-2024 Legegintzako Dekretua eman zuen, eremu babestuak, ingurumena eta eremu horretako meatze-proiektuek kaltetutako komunitateen eskubideak babesteko eta lehengoratzeko. Ebazpen horrek erabat blindatzen du Montaña de Botaderos «Carlos Escaleras» Parke Nazionala, 2012ko dekretuarekin Parke Nazionalaren nukleotik atera zituzten 200 hektareak itzultzen ditu eta babestutako eremu guztiek meatze-ustiapenetik salbuetsita egon behar dutela deklaritzen du.

2024ko uztailean, Honduraseko Geologia eta Meategien Institutuak ukatu egin zuen Los Pinares-Ecotek enpresak aurkeztutako meatze-kontratuaren eskaera. «Komunitateen borrokaren lorpen bat da hau, isuritako odol guztiarengatik, defendatzaileak espetxean egondako egunengatik, sufritutako minagatik; hor dago prozesu honetan emandako guztiaren emaitza» izan ziren Carlos Leonel George Tocoa Udalerriko erregidorearen hitzak Mugarik Gabek egindako elkarrizketa batean.

Ebazpena ospatzen den arren, egungo egoera oraindik ere arriskutsua da komunitateentzat eta Udal Batzordean antolatutako biztanleentzat, beste batzuetan gertatu den bezala, «garaipen» baten ondoren, errepresaliak indartsuagoak izaten direlako, interes ekonomiko

eta politiko handiei eragiten dielako, bai tokian-tokian, bai nazio mailan, baita nazioartean ere.

Uztailaren 3an, Herri Batzar masibo bat egin zen Tocoako Udal Batzordearekin, udalerriko komunitateekin, giza eskubideen aldeko erakunde sozialekin, SERNAko ordezkariekin, Giza Eskubideen Idazkaritzarekin eta OACNUDHrekin, komunitateei 18-2024 dekretua emateko. Gainera, «Carlos Escaleras» Parke Nazionalaren nukleoa bisitatu zen, eta bertan egiaztatu zen enpresak entregatu gabeko eremuak ustiatzen dituela, hala nola, San Pedro ibaian harria eta burdina birrintzeko instalazio bat jartzea, baimenik gabeko kale bat irekitzea eta enpresako segurtasun-langile armatuak ingurutik ibiltzea. Egoera horiek, agintari nazionalek ezagutzen zituztenak Udal Batzordeak salatu baitzituen, enpresaren ustiapen-baimena baliogabetzeko arrazoi bihurtu ziren.

Uztailaren 4an, enpresako abokatuek Udal Batzordea salatu zuten Ikerketako Polizia Zuzendaritzan eta Ministerio Publikoan, jabetza pribatua inbaditzeagatik, nahiz eta Parke Nazionala izan eta ibilbidea agintariekin egin. Aldi berean, egun horretan bertan, Tocoako Udalean sute bat izan zen, eta ondorioz, Tributazio eta Diruzaintza sailak kaltetu ziren. Alkateak Udal Batzordeko kideak jo zituen balizko erantzuletzat, horiek kri-

minalizatze aldera. Bere aldetik, Udal Batzordeak ohar bat igorri zuen, José Miguel Martínez Polizia Nazionalerako bozeramaile ofizialaren hitzak aipatuz, zeinak udal-tertxea suntsitzeko edo su emateko plangintza nabarmena zegoela adierazi zuen; eta Ministerio Publikoari gertakariak ikertzeko eskatuz (Guapinol Resiste, 2024ko uztailearen 5a).

Ondoren, errepresaliak heldu ziren beste behin, modurik bortitzenean. 2024ko irailaren 14an, Juan López lurraren defendatzaile eta Udal Batzordeko kide eta Tocoako erregidorea tiroz hil zuten, egun batzuk lehenago, beste behin, Adán Funéz alkateak, narkotrafikoa-reenkin duen loturagatik, karguari uko egin zezan eska-

tzeagatik. Juan Lópezek CIDHK 2023ko urriaren 5ean eman zizkion MC 137-2023 kautelazko neurriak zituen, baina, hala ere, ez zen hura babesteko eta haren segurtasuna bermatzeko neurririk hartu.

Meatze-enpresak martxan dihardu eta errepresaliak oso bortitzak dira. Tocoa Udalerriko komunitateen eta Ondasun Komunen eta Publikoen Defentsarako Udal Batzordearen borroka aurrera jarraitzen du. 2024ko irailaren 23an itxi zen txosten hau, baina kasua zabalik dago oraindik. Carlos Leonelen hitzen arabera: «Udal Batzordea lurraldea, ura eta basoa defendatzen ari da, eta baita bizitza ere. Ez da bakarrik komunitateen bizitza, bizitza guztiak dira, munduaren bizitza».

*Ez dadila hil jatorrizko bidera itzultzeko itzaropena,
ogi-apurrak utzi genituen, gure oin biluzien aztarnak,
arantzak kendu genituen, bidea garbitu genuen atzetik datozen haurrentzat.*

*Ez dadila hil maite eta defendatzen zaituen herriaren itzaropena.
Berpiztu daitezela zure basoak, orbaindu daitezela zure zauriak, ene ama maitea, askatasunez entzun dadila berriro basoaren kantua.*

Ene ama maitea, itxaron iezaguzu, zure egarri gara, gorde diezagutela zure begitxoek ura pikondo artean.

*Ene ama maitea, hain hurbil sentitzen zaitut, baina hain urrun aldi berean.
Egunero, gero eta gehiago sentitzen dugu zure kantuaren, zure edertasunaren, zure maitasunaren,
zure samurtasunaren, gure laboreen falta.
Egunero gehiago maite zaitugu.*

*Beti izango gara zure matxinoak, gaizkile deitzen gaituztenok, zu hainbeste maitatzeagatik, zain-
tzeagatik, gure ama defendatzeagatik, zu gabe hiltzeari uko egiteagatik.*

*Ez dadila hil itzaropena, ibaiak indarrez jarrai dezala, goraldiek isiltasuna hautsi dezatela, krisei-
luek pizturik jarrai dezatela, ahotsek bat egin dezatela politikari gor eta itsuak entzun arte,
zu aske izan arte, beti izan baitzinen aske. Eutsi, Guapinol.*

Dalila Argueta,

Dalila Argueta Hondurasetik erbesteratu behar izan zuen, Guapinoleko erresistentziako kide izateagatik. Borrokalari nekaezina eta Mugarik Gaberen aliatu handia da. Eskerrak eman nahi dizkiogu txosten hau egiten emandako laguntzagatik, eta poema hau idatzi izanagatik. Eskerrik asko itzaropen eta erresistentzia hitz hauengatik. Mila esker!

Erreferentzia bibliografikoak

- **Alianza Centro Americana Frente a la Minería.** 2020. *Guapinol Resiste. Orígenes del conflicto minero en el Bajo Aguán, Honduras.* Informe de la Delegación Internacional de Verificación de la Alianza Centro Americana Frente a la Minería ante denuncias de violaciones de derechos humanos en Tocoa, Colón, Honduras 8-15 de junio, 2019 https://acafremin.org/images/documentos/Guapinol_ESP_Baja_Res.pdf
- **Agencia de las Naciones Unidas para los Refugiados** (2017). *Informe sobre tierras, viviendas y desplazamiento forzado en Honduras.* <https://www.acnur.org/5b96a9434.pdf>
- **Banco Mundial.** Honduras: panorama general (4 de octubre de 2023) <https://www.bancomundial.org/es/country/honduras/overview> Consulta 5 de marzo de 2024.
- **Centro de Estudio para la Democracia.** 2023. *Conflictos ambientales locales en Honduras: un balance de los primeros 6 meses del 2023* <https://cespad.org/hn/wp-content/uploads/2023/08/Mapeo-conflictividad-WEB-2.pdf>
- **Centro por la Justicia y el Derecho Internacional** (2022). *Derechos humanos y proyectos extractivos en Honduras.* <https://cejil.org/wp-content/uploads/2023/07/DERECHOS-HUMANOS-HONDURAS.pdf>
- **Contra Corriente,** (10 de enero de 2023). Bufete del actual ministro Tomás Vaquero representa empresas de Lenir Pérez, empresario señalado de vulneración a DDHH, (Consulta 6 de marzo de 2024) <https://contracorriente.red/2023/01/10/bufete-del-actual-ministro-tomas-vaquero-representa-empresas-de-lenir-perez-empresario-senalado-de-vulneracion-a-ddhh/>
- **Criterio 2019.** *Tocoa es declarada libre de minería, pero proyecto conflictivo sigue firme, 29 diciembre.* (Consulta 4 de marzo 2024) <https://criterio.hn/tocoa-es-declarada-libre-de-mineria-pero-proyecto-conflictivo-sigue-firme/>
- **Comisión Interamericana de Derechos Humanos.** Resolución 55/2023 Medidas Cautelares No. 137-23 Integrantes identificados del Comité Municipal de Defensa de los Bienes Comunes y Públicos de Tocoa y otros respecto de Honduras. 5 de octubre de 2023 https://www.oas.org/es/cidh/decisiones/mc/2023/res_55-23_mc_137-23_ho_es.pdf
- **Comisión Interamericana de Derechos Humanos.** *Informe Anual 2015* <https://www.oas.org/es/CIDH/informes/IA.asp?Year=2015>
- **Comisión Interamericana de Derechos Humanos.** *Informe Anual 2019* <https://www.oas.org/es/cidh/docs/anual/2019/docs/IA2019cap4A-es.pdf>
- **Comisión Interamericana de Derechos Humanos.** *Informe Anual 2021* <https://www.oas.org/es/CIDH/informes/IA.asp?Year=2021>
- **Comisión Interamericana de Derechos Humanos.** (2023). *Visita in loco a Honduras, 24-28 de abril de 2023. Observaciones preliminares.* <https://www.oas.org/es/cidh/actividades/visitas/2023/04-28-Visita-in-Loco-Honduras.pdf>
- **Oficina del Alto Comisionado de Derechos Humanos de las Naciones Unidas** (11 de enero de 2019). *Visita a Honduras. Informe del Relator Especial sobre la situación de los defensores de los derechos humanos.* <https://www.ohchr.org/es/documents/country-reports/ahrc4060add2-visit-honduras-report-special-rapporteur-situation-human>
- **Estrada, R.** (10 de febrero de 2022). *Una procesadora de óxido de hierro, la otra tragedia de Guapinol* <https://cespad.org/hn/una-procesadora-de-oxido-de-hierro-la-otra-tragedia-de-guapinol/>
- **FOSDEH, UNAH, OXFAM.** (2021), *Territorios en Riesgo III: Minería, hidrocarburos, y generación de energía eléctrica en Honduras.* <https://fosdeh.com/wp-content/uploads/2021/09/2021-fosdeh-oxfam-unah-TER3.pdf>
- **García, Mercedes** (2016) *Canadian Mining: Still Controversial in Central America. The Case of Honduras.* *Council on Hemispheric Affairs*, 4 mayo. <https://coha.org/wp-content/uploads/2016/05/Canadian-Mining-Still-controversial-in-Central-America.pdf> (Consulta 6 marzo 2024)
- **Giada, Ferrucci.** (16 de octubre de 2023) *Guapinol Resiste.* <https://storymaps.arcgis.com/stories/9661c7f5f8c94638bba98df20cdc366c> (consulta 29 febrero 2024)
- **Gudynas, Eduardo.** (2019). *Extractivismos y corrupción. Anatomía de una íntima relación.* Abya Yala.

- **Instituto Nacional de Estadísticas de Honduras.** <https://www.ine.gob.hn/V3/>
- **Machado, Horacio.** (2019). *Potosí, el origen. Genealogía de la minería contemporánea.* Abya Yala.
- **Mahtani, Noor** (13 de enero de 2023). *Jairo Bonilla y Aly Domínguez, los primeros ambientalistas asesinados en 2023.* El País. <https://elpais.com/america-futura/2023-01-13/jairo-bonilla-y-aly-dominguez-los-primeros-ambientalistas-asesinados-en-2023.html>. (Consulta 8 de marzo de 2024)
- **Oficina del Alto Comisionado de los Derechos Humanos de las Naciones Unidas** (19 de noviembre de 2021). <https://www.ohchr.org/es/press-releases/2022/01/honduras-release-guapinol-defenders-and-honour-pledges-made-un-human-rights>
- Red Nacional de Defensoras de Derechos Humanos en Honduras RNDDH. *Informe de la Realidad de las Defensoras en Honduras.* 2023. <https://im-defensoras.org/es/2024/03/red-nacional-de-defensoras-de-derechos-humanos-en-honduras-presenta-informe-sobre-situacion-de-defensoras-en-2023/>
- **Servicio en Línea de la Sociedad Suiza de Radiodifusión y Televisión.** (14 de abril de 2021) https://www.swissinfo.ch/spa/honduras-remesas_las-remesas-enviadas-a-honduras-suben-29---pese-a-la-covid-19/46532480
- **University of Virginia School of Law,** 2020. Acompañamiento al antejudio a los defensores de los ríos Guapinol y San Pedro, Virginia.
- **Vijil, L.** (7 de diciembre de 2023). *Cabildo abierto en Tocoa, un conflicto sobre otro.* <https://cespad.org.hn/cabildo-abierto-en-tocoa-un-conflicto-sobre-otro/>
- **Vijil, L.** (1 de febrero de 2023). *Guapinol: una disputa territorialidad que parece no tener fin* <https://cespad.org.hn/guapinol-una-disputa-territorialidad-que-parece-no-tener-fin/>



COMITÉ MUNICIPAL
EN DEFENSA DE LOS BIENES
COMUNES Y PÚBLICOS